

HIL HONEN 19AN PEKINEN ESKU GERATUKO DA ORAIN ARTE PORTUGALEN KOLONIA IZAN DEN LURRALDE HORI

Macaun alderdi askotako sistema bermatuko duela agindu du Txinak

■ Edmun Ho izango da lurralde horretako gobernadore berria, ez dela komunista aldarrikatzen duen 44 urteko politikari bat

■ Jokoaren negozioaren inguruan sortutako mafiak eta krimen antolatua dira egun Macauko arazo nagusiak

■ Autonomia zabalaren aldekoa da Edmun Ho, baina beste ezeren gainetik «Txinaren interes nazionalak» daudela adierazi du

Agentziak / Macau

«DEMOKRAZIA gardenena bermatuko dugu Macaun, eta alderdi politikoek parte hartuko dute», adierazi zuen atzo Edmun Ho Hau Wah-ek, abenduaren 19an Macau Txinaren esku geratzen denean lurralde hartako gobernuaren buruzagitza hartuko duen politikariak.

Portugal, Txina eta Macauko agintariek elkarren artean hitzartu dute Edmun Hok gidatuko duela trantsizioa. Guztien gustuko ezaugarriak betetzen ditu, antza, eta Txinako Macauko gobernadore izateko pertsona aproposa dela uste dute alde guztiek. «Ez naiz inongo alderdi politikotako kide. Mendealdeko hizkera erabiliz, independentzat daukat neure burua», adierazi zuen etorkizuneko asmoak azaltzeko emandako prentsaurreko batean. Hala-ber, behin baino gehiagotan azpimarratu du bera ez dela komunista.

Edmun Hok 44 urte ditu eta Kanadan egin zituen Enpresa Zientzietako ikasketak. Gero bankuen alorrean lan egin du beti. Ildo horretatik, Macauko gobernadore berriak oso garbi dauka ekonomia kapitalista eta liberala bultzatu behar duela, «egun go globalizazio joerekin bat egiteko».



HOANG DINH NAM / AFP

Dena dela, zailtasun bat baino gehiago aurkituko du bide horretan. Izan ere, Macauren diru iturri nagusietako bat jokoaren inguruko negozioa da. Kasino asko daude lurraldean, eta mila milioika dolar mugitzen dituzte —2.600n 1997an—. Diru erraz samarra ekarri die

horrek Macauko biztanle askori, baina, aldi berean, mafiak eta haien arteko borrokak ugaritu egin dira. Ildo horretatik, krimen antolatua da, egun, Macauko arazo handienetako bat.

Halaber, jokoak izan duen arrakastaren ondorioz, beste ekoizpen sektoreak bertan behera erori dira —turismoa izan ezik—, eta langabezia gero eta handiagoa da; gaur egun, %6,4koa. «Gazte askok ez dute onartzen lan-tegietan edo beren gurasoen lanpostu beretan lan egitea. Hala ere, beharrezkoa da ekoizpen sektoreak ugartzea eta belaunaldi berrientzako erakargarri diren lanak sortzea», proposatu zuen gobernadore berriak.

Txinarekin izango dituzten harremanei buruz, bere ideologia bakarra «Macauko Oinarrizko Legea» dela adierazi zuen Edmun Hok. Lege horrek autonomia handia ematen dio Macauri Pekine-kiko botereko arlo guztietan.

Hala ere, gobernadore berriak argi utzi du ororen gainetik «Txinaren interes nazionalak» daudela, eta «herri bat, bi sistema» eredua defenditu du.

Duela 443 urtetik Portugalen kolonia izan da Macau, baina hilaren 19an Txinaren eskuetara itzuliko da. 22 kilometro koadro dauzka Macauk, eta 450.000 biztanle.

Durangoko Azokan,

zatoz gure gunera

Egunkaria